



ABENDUAK 2 DICIEMBRE
EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA
ARCHIVO HISTÓRICO DE EUSKADI



SEGURIDAD VIAL
Y MOVILIDAD SEGURA
en **ÁMBITO URBANO**

HIRIKO BIDE
SEGURTASUNA ETA
MUGIKORTASUN SEGURUA

Iñaki Eguiara.

Trafiko Zuzendaritzako Ingeniaritza arloko arduraduna

"Zirkulazioa arindu eta bide segurtasuna hobetzeko teknikak"

Zirkulazioa sailkatzeko modu ugari daude, horretarako darabiltzagun elementuen arabera. Aukeretako bat hiriko zirkulazioa eta hiriartekoa bereizten da. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Gehien bereizten dituztenen artean daude, batetik, abiadura desberdintasuna, eta bestetik, eta hauxe da garrantzitsuen, elkarreragina. Hiriarteko zirkulazioan ia ez dago ibilgailuen eta erabiltzaile zaurgarrien –oinezkoak eta txirrundulariak, bereziki– arteko elkarreraginik; hirikoan, berriz, askoz ere elkarreragin handiagoa dute. Elkarreragin hori ahalik eta seguruena izan dadin, azken 20 urteotan hainbat estrategia eta ekipamendu garatu dira –geroz eta gehiago ari da zabaltzen horien ezarpena–; eta horiek guztiak "Zirkulazioa arintzea" izenez ezaguna den joeraren baitan daude txertatuta.

